



LAUDION AUTO ENPLEGUA SUSTATZEKO ETA ENPRESAK SORTZEA PIZTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN PROZEDURAREN OINARRIAK.

1. Oinarria. Objektua eta ezarpen esparrua.

Oinarri hauen objektua eta helburua da laguntzea langabezia dauden pertsonen beraien kabuz lanpostu berriak sortzea, Laudion enpresa berriak sortzearen bitartez.

Diru-laguntza honen objektu den epea hau da: 2016ko urtarrilaren 1etik hasi eta 2016ko abenduaren 31ra arte.

2. Oinarria. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak hauek izango dira: enpresa bat sortzea, abian jartzea eta funtzionaraztea. Enpresa horiek edozein forma juridiko izan dezakete, oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betez gero.

3. Oinarria. Erakunde onuradunak eta betebeharreko baldintzak.

Honako hauek eskuratu ahal izango dituzte atal honetan ezarritako onurak: Laudioko enpresek, zeinahi izanik ere bere izaera juridikoa, banakako enpresaburuak eta profesionalak barne:

1. Sozietateak bere egoitza, edota zerga-egoitza eta lantokia Laudio udalerrian izatea eta betetzea mikroenpresen betebeharra: gutxienez ere 10 pertsona okupatzea.
2. Jarduera ekonomikoetan alta eman izana 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epean, egun biak barne. Edo Laudio Udalak atuenplegua sustatzeko 2015ean emandako diru-laguntzaren onuraduna izatea, beti eta bere alta jarduera ekonomikoen zergan 2015eko abuztuaren 1etik abenduaren 31ra bitartean eta soilik 2016 urteari dagokion proportziozko epe-zatian sartuta badago (alta egunetik gehienez ere 12 hilabete).

Eragin eta ondorio horietarako, ez da erakunde onuraduntzat joko, erakunde horrek alta eman badu jarduera ekonomiko batean, IFZ/NAN berberarekin, jarduera talde berberean beste erakunde bat egon bada 2015eko uztailaren 1etik hasi eta abenduaren 31era artean. Erakunde bakoitza edo erkide bat baino gehiago badago, horien arteko bakoitzak, indibidualki, ezin izango du NAN berarekin alta emanda eduki diru-laguntza eskatu duen erakundearen jarduera ekonomikoa garatzen duen talde berean 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean.



Arza -Irukurutzeta

01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)

www.laudio.euswww.laudiogarapen.eus

3. Erakunde onuraduneko pertsona sustatzaile batek gutxienez egiaztatu behar du jarduera ekonomikoetan alta eman aurreko gutxienez eren hilabete bateko langabezian zegoela eta langile autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean alta eman izana.
4. Egunean izatea bere zerga-betebeharrak, hala Foru Ogasunarekin, nola Laudio Udalarekin, zein indarreko xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekikoak.
5. Ez egotea eraginda Laudio Udalaren Diru-laguntzen udal Ordenantzari jasotako debekuetan aipatzen diren egoerarikoren batean.
6. Baztertuta geratzen dira enpresa berriaren kontzeptutik aldezturiko jarduera baten lekualdatzetik eratorritakoak, enpresa-titular berriak ahaide izatea ezkontidea, seme-alabak eta ondorengoak eta gainerako ahaidekoak odolez edo kideztaz, bigarren graduraino, hori ere barne, enpresaren jarduera eskualdatuko duen pertsonarekin.

4. Oinarria. Diru-laguntza jaso dezaketeko gastuak.

Diru-laguntza jaso ahal duten gastuak hartuko dira, berezkoak direnak enpresa lehen 12 hilabeteetan martxan jarri eta funtzionamenduan ipintzeko ezinbestekoak badira, beti eta horien izateari eta ordaintzeari buruzko dokumentazio egiaztagarria badago (fakturak) eta ezarritako epe barruan egin badira. Hauek izan daitezke:

- negozioa kokatzen den aretoaren alokairu edo errentaren zenbatekoa,
- negozio aretoaren hornidurak (argia, ura, gasa, telefonoa),
- aseguruaren ordainak edo primak;
- profesional independenteen zerbitzuak;
- publizitatea eta promozioa,
- autonomoen araubide berezian Gizarte Segurantzari edo dagokion mutualitateari ordaindutako kotizazioak, hala nola inguruabar komunengatik araubide orokorrean.

Aretoek sortutako gastuak kontuan hartu ahal izateko, aretoon alokairu-kontratua eskatuko da, beti ere diru-laguntzaren justifikazioaren ondorioetarako, jarduerari atxikita daudela egiaztatzen den proportzioan.



5. Oinarria. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Enpresa bakoitzerako diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.000 euro izango da, edo 2.500, baldin eta sustatzaileen arteko baten batek Laudio Udalaren Tokiko Garapen Agentziak eginiko alde zuzeneko Bideragarritasun Planik badauka.

Edozein kasutan ere, eman beharreko diru-laguntzen guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu 6. Oinarrian aurreikusitako diru-zenbatekoa eta kopurua.

Edozein kasutan ere, kasua bada (Oinarrien arabera eta horiekin bat onartutako) eskaera guztiei eman beharreko diru-laguntzen diru sailean kontsignatu kopurua baino gehiago bada, eskaera guztien artean portziozko hainbanatzea egingo da.

6. Oinarria. Aurrekontu diru-izendapena eskura izatea.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak finantzatuko dira 2017 urterako udal aurrekontuko "Ekintzaileentzako diru-laguntzak" izeneko 1000-4331-481.00 diru-sailaren kargutan, obligazioa finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatearen etendurako baldintzaz, betiere 15.000,00 euro zenbatekoz.

7. Oinarria. Bateragarritasuna beste laguntzekin.

Laguntza hauek ematea bateragarria izango da beste edozein organismok eta erakundek emandakoekin, beti-eta betetzen badituzte hurrengo baldintza hauek:

Justifikatutako gastuetatik zuzenean kengarriak izango dira, diru-laguntzen egintza eta helburu berdina aurrekusi duten beste administrazioen edo organoek emandako beste diru-laguntza batzuk, aurreko puntuan adierazitako gehieneko zenbatekoak jotzen diren kasuetan, halako moduz ezen oinarriotan araututako laguntzen zenbatekoa inoiz ere izan litekeen halako zenbatekoa ezen, berak bakarrik isolatuta edo beste administrazio batzuetako laguntzekin bateratuta, erakunde onuradunak gauzatu behar duen jardueraren kostua gainditzeko adinakoa.

Beste diru-laguntzaren bat jaso izan den unean, Laudio Udalari jakinaraziko zaio. Jakinarazpen hori ezagutu bezain laster egin beharko da, eta dena den, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioa baino lehen. Jarduerak finantzatu direnean, jasotako diru-laguntzaz gainera, elkartearen funts propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabideekin, egiaztatu beharko da baita justifikazioa, zenbatekoa, jatorria eta funts horien aplikazioa diru-laguntzako aktibitateetara.



8. Oinarria. Erakunde onuradunen betebeharrak eta obligazioak.

Laguntza hauen erakunde onuradunak, emandako diru-laguntzari dagokionez, nahitaez behartuta daude Udala / Tokiko Garapen Agentziaren egiaztapen ekimenen eskura jartzeko, Herriko Etxeko Kontu Hartzailera Nagusiari dagozkion finantzen kontrolera eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusita haietara.

Arestiko obligazio orokorraz gainera, beharko dute:

- a) Enpresa alta emanda edukitzea, gutxienez ere, kasuan kasuko, eratu eta sortu zenetik, edo ondorengotzatik hasitako 12 hilabeteko epean, salbu eta egiaztatzen dituzten enpresa alde aurretik itxi beharra, arrazoi objektibo eta justifikatuengatik.
- b) Jakinaraztea edozein inguruabar aldaketa, hala objektiboa, nola subjektiboa, diru-laguntza emateko kontuan hartua izan bada.
- c) Emaniko diru-laguntzekiko bere zereginak egikaritzekoan eta gauzatzerakoan Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziak eska dezakeen informazio oro helaraztea.
- d) Jakinaraztea Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziari helburu berdinerako beste diru-laguntzak edo laguntzak eskatu edota lortu izana edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik.
- e) Dagokion legeriak eskatutako terminoetan, hala bada kasua, kontu liburuak eta gainerako dokumentuak behar den legez eta auditatu ostean eskura izatea, erregistratuta eta jarraibideak idatzita.

9. Oinarria. Nahitaezko eta ezinbesteko dokumentazioa. Eskara eta Justifikazioa

Berriazko eredu normalizatuan aurkeztuko dira laguntza eskaerak, erantsita hauek:

- a) Enpresaren ordezkartzan ari den pertsonak sinatutako eskaera-orka eta horretarako aurreikusitako gainerako formularioak, zeintzuen artean dauden hauek:
 - Laguntza eskaera aurkeztu duen pertsonari baimen ematea enpresaren izenean jarduteko jakinarazpenen ondorio eta eraginetarako.
 - Zinpeko aitorpena jarduera berdinerako eskatu edo jasotako laguntzez beste erakunde publiko edo pribatuetatik.
 - Baimena ematea Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziari eskatu ahal izateko, hala egoki baderitzo, informazioa Euskal Enpleguko Zerbitzua den Lanbide erakundeari eta beste edozein erakunde publikori batera etor litezkeen diru-laguntzak eman lezakeenari.



Arza -Irukurutzeta

01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)

www.laudio.euswww.laudiogarapen.eus

- Zinpeko aitorpena honetaz: arau-hausteen batzordeak diru-laguntza publikoetara aurkeztetik kanporatuta ez egoteaz.
 - Zinpeko aitorpena bere mikroenpresa izaeraz.
 - Helbideratzeko banketxeko datuen inprimakia beteta.
- b) Laguntzaren hautagai den eskatzailearen NAN/AIZ fotokopia eta zerga identifikazio txartelarena kasu hauetan: Ondasunen Erkidego, Sozietate Zibila, Merkataritza Sozietatea, Sozietate Kooperatiboa, Sozietate Laborala.
- c) Enpresa eraketako erregistro datuak eta eraketako eskrituren kopia, nortasun juridiko propioa duten erakundeen kasuan. nortasun juridiko propiorik ez duten sozietate zibilen kasuen, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua erantsiko da.
- d) Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzak eguneratutako ziurtagiriak, erakunde horiekiko ordaintzeko betebeharrak eta obligazioetan egunean izateari buruz.
- e) Eskatzailearen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako alta eta baja aldien eguneratutako ziurtagiria (Foru Ogasuna).
- f) Gutxienez ere sustatzaileen arteko baten pertsona langabea izatea egiaztatzea, gutxienez ere, enpresak alta hartu duen eguna baino berehalako hilabete lehenagotik. Egiaztatze hori egin behar da Lanbidek eskainitako «Inskripzio aldien eta lan egoeraren txostena» eta Gizarte Segurantzak eskainitako «Lan bizitzako txostena» aurkeztearen bitartez. Aipatu diren bi txosten horiek ez badatoz bat, lan bizitzakoari kasu egingo zaio.
- g) Autonomoen araubidean edo dagokion mutuan altaren berri-ematearen kopia.
- h) Jardueragatik jaso izan diren beste diru-sarrera edo diru-laguntzak zehaztuta.
- i) Emandako diru-laguntza justifikatuko da egindako gastu diru-lagungarrien faktura original egiaztatzaileak aurkeztearen bitartez, beti ere gastu horiei dagokien banketxe ordainketa agiriarekin batera.

Dena den, justifikazio lege eskainitako fakturak eginda egon behar dira diru-laguntzaren onuraduna den enpresaren izenean, eskatzailearen zerga arloko datuak guzti.

Hain zuzen, negozioko areto-alokairuaren kasuan, eta hori justifikatzeko, soilik aintzat hartuko dira kontzeptu horiengatik ordaindutako kopuruak, alokairu-kontratua erantsi edota txertatu bada, eta ondorengo ordainketa jarraituen banketxearen abonu-agiriak ere erantsi badira.



- j) Ezinbesteko betekizuna izango da aurreko goragoko paragrafoetan zehaztutako gastuak kontuan izateko eta aintzat hartzeko, autonomoen araubide berezian Gizarte Segurantzari edo mutualitate baliokideari egindako kotizazioen ordainketei dagozkien egiaztagiriak aurkeztea, Jarduera Ekonomikoetan alta eman zenetik gehieneko urte bateko epe barruan zorpetetutakoak.

Xede horretarako erantsiko dira hileroko banketxeko abonu-agiriak edota ordainketa horiek benetan egiaztatuko dituen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako dokumentua. («Ingresatutako oinarrien eta kuoten txostena»).

Gastu guztiak hartuko dira kontuan dagokion jarduera ekonomikoan alta eman den unetik hasita urte bateko epean zehar. Gizarte Segurantzari edo mutualitate baliokideari hileroko ordainketa ez bada egiaztatzen, altan egondako denboran zehar edo ordainketa egiaztatzen den denboran zehar emandako zenbatekoen hainbanaketa egitea izango du ondorio eta dagokion esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa gutxitzea. Dena den, jarduera ekonomikoan baja hartzeak eragingo du egun horretarik aurrera ordaindu barik pendiente dauden diru-zenbatekoak kobratzeko eskubidea galtzea.

Justifikazioaren aurkezpena egin beharko da era batera diru-laguntza eskaeraren aurkezpenarekin.

Justifikatzeko fakturen fotokopia konpultsatuak, soilik izango dira baliozkoak egiaztagiri legez, kasua bada gastu hori finantzatu izan dela partzialki edo zati batean beste errekurtsio edota diru-laguntza batez.

Eskaera/justifikazioa onartuta geratuko da balioz justifikatutako gastuen zenbatekora arte, faktura/dokumentuekin eta dagozkien ordainketa egiaztagiriekin.

Tokiko Garapen Agentziak aztertuko eskaera bere termino guztietan eta, edonola ere, informazio eskatuko die balizko laguntzen bateratzeari buruz Euskal Enplegu Zerbitzuari (Lanbide) edo laguntzak ematen dituzten beste erakunde publiko batzuei.

Konprobatuko da ofizioz ea erakunde eskatzailea egunean dagoen Laudio Udalarekiko zerga betebeharren betekizunean eta (beharrezkoa balitz) Jarduera Ekonomikoen Zergan alta ematearekiko enpresaren zabaltzeko baimenak edukitzeaz, hala nola egoeraz.



Hamar egutegiko egunen epea ezarri da eskatzaileek jasotzen duten aginduzko deitik hasita, prozedura honetan eskatutako dokumentazio guztia osatu ahal izan dezaten, hala eskaerarako nola horren justifikaziorako, betiere ulertuta hala egingo ez balute une horretara arteko izapidetze guztia baliogabetzat hartuko dela.

10. Oinarria. Eskaeren aurkezpena

Eskaera, nahitaezko dokumentazioa eta agiriekin batera, aurkeztu beharko da Laudio Herriko Etxeko Erregistro Orokorrean. Aplikaziokoa izango da Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan aurreikusitakoa.

Interesatuek eskaera aurkezteak esan nahi du oinarri hauetako edukia onartu dutela.

Eskaera aurkezteko epea hasiko da deialdi hau ALHAOn argitaratzen den biharamunetik, eta zabalik egongo da hurrengo 30 baliiodun egunetan zehar.

11. Oinarria. Prozedura.

Instrukzioa eta proposamena.

Garapen Agentziari egokituko zaio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen instrukzioa egitea. Eskaerak aztertu eta ebaluatu egingo dira dagokion Hezkuntza, Berdintasuna, Gazteria eta Tokiko Garapen Agentzia Informazio Batzordean eta honek eginiko ebazpen proposamena.

Ebazpena.

1. Behin Hezkuntza, Berdintasuna, Gazteria eta Tokiko Garapen Agentzia Informazio Batzordeak bere proposamena aurkeztu ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du prozedura arrazoitutako ebazpenaren bitartez, oinarrietan ebatzitakoaren arabera, prozeduran nahikoa egiaztatuta geratu behar izanik ebazpenaren funtsak eta horren justifikazio perfektua.
2. Jakinarazpenen prozesua sinplifikatu, arindu eta errazteko, diru-laguntza eskatzaileek eman ahal izango diote Herriko Etxeari udalaren dokumentazioa eta komunikazioak jaso nahi dituzten dagokion posta elektronikoaren helbidea.
3. Ebazpenean berariaz jasota geratuko da ez onartzearen arrazoia.



4. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da deialdia argitaratuko den egunetik hasita.
5. Ebazpenean berariaz jasota geratuko da diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era.

12. Oinarria. Kudeaketa, diru-laguntzaren ordainketa.

Ordainketa egingo da, behin Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena onartuta, ordainketa aldi bakarraren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena hartu duenetik hasita hiru hilabeteko epe barruan. Horretarako, aldeztu aurretik Laudio Udalak ofizioz egiaztatuko du diru-laguntzaren onuradunak jarraitzen duela alta emanda laguntza kobratzeko unean, beti eta aurrekontuko eskurakoek hala ahalbidetzen dutenean.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa bakoitza egingo da banku-transferentzia bidez, erakundeak edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

13. Oinarria. Oinarrien interpretazioa.

Oinarrien interpretazioan sor daitekeen edozein zalantza, Hezkuntza, Berdintasuna, Gazteria eta Tokiko Garapen Agentzia Informazio Batzordeak ebatzi eta argituko du.

Oinarri espezifiko hauetan berariaz jasota ez dagoen guztian, Laudio Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean erabakita dakarrenari begiratuko zaio eta Diru-laguntzen Orokorra den 38/2003 Legeari eta gainerako legeriako xedapen komunei.

14. Oinarria. Oinarriak ez betetzea.

Oinarri hauetan erabakitako edozein betebeharrak eta baldintza ez badu betetzen onuradunak, ondorio legez izango du laguntza eskubidearen galera aitortzea, jasotako diru-zenbatekoak bueltatu eta itzuli beharra eta laguntza ordain egin zen egunetik hasitako berandutza korrituak ordaindu beharra eskatzea eta soberan diruz lagundutako zenbatekoa bueltatzeko prozedurari ekin beharko zaio, Emateko Oinarrietan aurreikusitako justifikazio guztia edo partzialaren betebeharra ez betetzearen ondorio guztiak aplikatuta, Diru-laguntzen orokorra den 38/2003 Legean ezarrita dakarren prozedurari jarraiki, hala itzultze eta bueltatzeak exijitzeko nola suerta daitezkeen arau-hauste eta zehapenatarako.



15. Oinarria. Izaera pertsonaleko datuen babesa

Oinarri hauen izapidetzearen ondoriozko dokumentazioan islatuko diren izaera pertsonaleko datuak, Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziako datuen fitxategiko parte izatera pasatuko dira, zerbitzuen kudeatzea errazteko helburuaz. Laguntzen programan parte-hartzeak, batera dakar eskainiko diren izaera pertsonaleko datuak beste Administrazio Publiko batzuei edo Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziaren erakunde laguntzaileei laga egin ahalko zaizkiela. Hala ere, lagatze hori, soilik gauzatu ahalko da Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentzia honen funtzioekin harreman zuzena duten helburuak betetzea errazteko.

Emango dizkiguzun datuak pasako dira fitxategi baten parte izatera, Enpresa Arloa izena edukiko duena, Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziaren jabetzakoa, Enpresa Arloa kudeatzeko helburuaz, datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezko eta beste hainbat segurtasun neurri jarrita dituelarik. Datuen Babeserako Lege Organikoak -DBLOak- berariaz aitortzen dituen irispide, zuzentze, ezabatze eta aurkaritza eskubideak egikaritu ahal izango dituzu komunikazio idatzi bat bidalita Laudio Udaleko Tokiko Garapen Agentziako zinegotzi ordezkariari.